

K...eta
Kitto!

2016-IV-8

968 zkia.

85 urte balkoia munduratu zela



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopia, katarata eta prezbiziaren kirurgia
Begi lehorraren tratamendua





J. Etxeberria, 13
943 700 230

Audifonoak

*Probatu doan
Konpromiso barik*



MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Ate irekiak

apirilak 13 (asteazkena) 18:00
maiatzak 21 (larunbata) 11:00

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91

**GOI
MAILAKO
HEZIKETA
ZIKLOAK**

2016-2017

www.mondragon.edu/gmhz





Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Jose Luis Gorostegi, Silbia
Hernandez, Uxue Igarza
eta Haizea Arizaga.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Leire Iturbe eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Arkimia

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhua Luz.

TIRADA: 8.050 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

Euskal eskola publiko orekatua eta kalitatezkoa

Eibarko ikastetxe publikoetako Bigarren Hezkuntzako (DBH, 12-16 urte) ikasle guztiak zentro bakar batean batu nahi ditu Jaurlaritzak. 700 ikasle eta kurtso bakoitzean 8 gela izango dituen ikastetxe erraldoi bakar bat, 4 kurtso egiteko 3 eraikin pasatzera behartuz ikasleak. Datorren apirilaren 21ean hartu nahi dute erabakia.

Eibarko Eskola Mapa berritzea omen da helburua, baina Jaurlaritzaren proposamenak ez du mapa aldatzen. Haur Hezkuntza (HH) eta Lehen Hezkuntzako (LH) zentrozen artean dauden desorekak onargarriak ez direla aitortzen dugun arren, ez da neurri bakarra ere planteatu LH-ko bost zentrozen egoera hobetzeko. Bigarren hezkuntzako bi zentroak —espazialki oso urrun dauden bi zentroak— bakar batean batzea, horixe da planeko lerro bakarra. Oinarritik hasi beharrean, etxea sabaitik egiten hasi nahi da.

Legeak dio eskola-mapa berritzeko prozesua adostasunez eta demokratikoki egin behar dela, baina Eibarren presaka eta adostasunik gabe egin nahi da. Zaila iruditzen zaigu sinestea, Eibarren

hezkuntzan ditugun arazo ugari eta anitzen irtenbide bakartzat, DBHko ikastetxeak elkartzeari denik. Ez da beste aukerarik eskaintzen, ez beste inolako zalantza edo biderik proposatzen.

Eibarren ikastetxe publikoen sare sendo eta kalitatezkoa izan dezagun, lehenengo urratsa lan-talde zabala osatzea izan beharko litzateke, hezkuntzako eragile guztion parte-hartzearekin adostasuna aurkitzeko. Eskatzen dugu, diagnostiko oso eta sendo bat egin dadila Eibarren hezkuntzak duen egoeraz, premiez, eta erronkez. Hori izan behar da edozein irtenbide proposatzeko lehenengo urratsa.

Badirudi, hezkuntzako profesional gutxiak babes-tuko luketela DBHrako (etapa zail eta gatazkatsu honetarako) horrelako egitura erraldoi bat. Guraso bezala, pentsatzen dugu, heziketa eta kalitate argudioak lehenetsi beharko genituzkeela edozein al-daketa egiten hasi aurretik.

**Mogel Isasi BHI Ikastetxeko guraso elkartea
J.A. Mogel Ikastola HLHI-ko guraso elkartea
(Sansaburu, Argatxa, Iturburu eta Mogel Isasi
ikastetxeetako guraso elkarteak)**

Ego Gain egoitzako langileei, mila esker

Aste gogorra izan da. Ama joan zaigu. Azken urtebetea Ego Gain egoitzan bizi izan da gure ama. Bere osasun egoera zela eta ez da erreza izan ino-
rentzat. Gainera, dena esan beharra dago, murrizketek hemen ere eragina izan dute. Pentsa, nagusiek erabiltzen dituzten fardelak ere aldatu egin zituzten egun batetik bestera, merkeagoak omen ziren, eta inongo arretarik ez zioten jarri kalitateari. Langile eta familiak kexatu ginen arren, kasurik ez.

Langile kopurua ere murriztu dute urte honetan. Gure ama bizi zen bederatzigarren soilairuan bi pertsona jardun osoan eta bat jardun erdian aritzen ziren. Orain azken hori ere kendu egin dute. Hogezi zaharri lagundu behar izaten diete oheratzen ilun-

tzero bi pertsonen artean, eta hori, gertutik bizi izan dugunok badakigu, itzelezko esfortzua da.

Ez da erreza izan, esan dugu lehen ere, baina zein goxo, zelako xamurtasunarekin, zenbat maitasunekin zaindu duzuen gure ama!!! Bene benetan eskerrik asko egoitzako langile guztiei. Eta ez bakarrik amarekin izan duzuen begiruneagatik, gu-
rekin ere ezin hobeto portatu zaretelako ere bai. Bai ama zuekin izan den urtean eta baita bere heriotzaren unean ere. Babestuak eta ulertuak sentitu gara oneoro eta hori, horrelako momentuetan, ikaragarri ederra da.

Milesker bihotz bihotzez eta laztan haundi bana.

Arantza Larrañagaren familia

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LAGUN.- Adiskidea. "Txikitatik izan dot hori laguna".

Pertsona. "Zenbat lagun sartzen ete dittuk plazan?".

LAGUNARTE.- Lagun taldea, adiskide giroa. "Lagunartian milla ipoin erabiltzen dittugu, jan eta eran bittartian".

LAGUNARTEKO TANBOLIÑA.- Lagunartean umoria jartzen dabena, beti umoretsu dabilena. "Berbetan zelebria, beti barria darixola, ta jai eta jolas guztietan aurrenengo tanboliña".

astean esanak

"Otsailean EAEn Gizarte Segurantzaren izena eman dutenen 132.018 kontratuetatik 121.579 (%92) aldi baterakoak dira. Gainera, kontratu horiek batazbeste hilabetean gaintzen dute doi-doi. Eta 25 urtetik beherako en salarioak, gordinen hartuta, 13.000 eurokoak dira urtero. Egoera horrekin badago bizitza-proiektu egonkorrik egiterik gure gizartean? Lan ona eta segurua dutenen eta era prekarioran lan egiten dutenen arteko zuloa gero eta handiagoa da. Horrek elkarbizitza soziopolitikoaren hondatzen du"

(ETIKARTE FUNDAZIOA)



AINARA RIVERAS

Posible zaigulako beti

Notiziak entzuten hasi eta askotan ez naiz kapaz erdira ere iristeko. Politikan akordioetara iristeko ezintasuna dela, ArcelorMittal, Panamako paperak direla. Siria eta Ekialde Hurbileko gatazka. Errefuxiatuen tragedia. Jihadismoa eta Hirugarren Mundu Gerra. Eta amaierarik ez dutela diruditen notizia tragikoen zerrenda luzea. Zein mundu sortzen gabiltza eta zer egin? Horiek bat-bateko zenbait galdera. Lehenik, iruditzen zait, tragediaren, injustiziaren eta gezurraren muinera jotzea. Oso modan ez dagoen ausardia eskatzen du horrek. Kokoteraino nago, ideia eta interes ekonomiko eta politiko berekoietatik haratago, gizon-emakumeen benetazko beharren araberako ekimen gehiago abian jartzeko akordioetara iristeko ahalmen eza. Gaur egun gizon-emakumeen emozioen eta barne gatazken identifikazioa eta lanketa funtsezko zeregina iruditzen zait, premiazkoa, gutako bakoitzaren barruetan egosten denak kanpoan baita isla zuzena. Inbidiak, minak, gorrotoak, egozentrismo itsuak blaitzen gaituzten bitartean, zail izango dugu oinarri sostengarriak eta sendoak izango dituen etorkizun anitza eta koloretsua sortzea, zail zaigu gure txikien erreferentzia arduratsuak bihurtzea. Egian eta balio bateratzaile eta humanoetan hezteak. Hitzek haratago, gutako bakoitzaren egunerokoan - etxean, lanean, peoran, auzoan ea - errealitate bilakatzea. Horixe erronka. Aste honetan, CAREK Eibarren martxan ipini duen eta igandean amaituko den Errefuxiatuentzako Arropa eta Zapata Bilketa adibideetako bat. Isil, umil, mila bolondres elkarlanean. Handitasunak txikitasuna duelako bide eta posible zaigulako beti.

Errefuxiatuendako bilketia

Egoeriaren larritasunak bultzatuta, errefuxiatuendako erropa eta oiñetakuak jasotzeko kanpaina abiatu eban CARE-k astelehenian. Domekara arte jasoko dabe materixala, Bittor Sarasketa kaleko 7xan (FIAT izandakuan), goizez 10:00etatik 13:00era eta arratsaldeaz 17:00etatik 20:00etara. Horrekin batera, materixala bidaltzeko dirua bihar da eta lagundu nahi dabe-nendako kontua zabaldu dabe Euskadiko Kutxan: 3035 0023 92 0231153418.

Erropa garbixa eta egoera onian jasoko dabe: bidaiatzeko aproposa (beroki oso lodirik ez), barruko erropak eta galtzerdikak (hondatu barikuak), zapata gogorak eta



emakumiendako zapata lauak, eta bururako zapixak eta xalak. Bide batez jendiari emondako laguntasuna eskertu nahi detse, aste honen erdialdera errefuxiatuerei bidaltzeko moduan ixa 300 kaja prest zittuen eta.

Materixala jasotzeko lokala B. Sarasketan dago.

asteko
4.000
datua

kidera aillegatziar dago "Amigos de la SD Eibar" Facebook-eko taldea. Urtarrillaren 1ian zabalduetako blogian, bataz beste, egunero 400/800 lagunek hartzen dabe parte eta 20 eta 50 mezu artian jasotzen dabe.

Errentaren kanpaina martxan

Abian dago 2015. urteko Errentaren kanpaina. Errenta autolikidaziño proposamenak apirillaren 11tik ekaiñaren 25era bittartian onartu ahal izango dira; eta gaiñerako modalidadiendako epia (mekanizatua eta Internet) apirillaren 18xan hasi eta ekaiñaren 25ian amaituko da. Bestalde,



Kanpaina astelehenian hasi eta ekaiñaren 25era arte iraungo dau.

errenta aitortpen mekanizaturako hitzorduak apirillaren 15etik ekaiñaren 6ra bittartian eskatu ahal izango dira. Autolikidaziño proposamena onartu nahi ez dabenak, barriz, apirillaren 19ra arte itxoin biharko dabe hitzordua eskatzeko.

Errenta aitortpena aurkezteko hiru modu dagoz: apirillaren 6tik 19ra bittartian 200.000tik gora proposamen (aitortpen guztien erdixa baiño gehiago) bidaliko dittue etxietara postaz eta, bestela, Ogasunaren webgunian eta buleguetan be eskuratu ahal izango dira. Proposamenekin ados izanez gero, telefonoz edo internet bidez onartu leikez (iaz proposamenen %89,4 onartu ziran); mekanizatua aukeratuz gero, telefonoz edo internet bidez hitzordua aurrez eskatuta aitortpena egiten lagunduko dabe buleguan; eta internet bittartez be aurkeztu leike, horretarako eskintzen daben laguntza programaz baliatuta.

Marearteko zabalgunera bisitak

Asteburu honetako marea bizixak aprobetxautu, marearteko zabalgunera bisita gidatuak antolatu ditue. Itsasbehera haundia izango denez, Geoparkiak holako egunetan primeran ikusi leikian marearteko zabalgunia deskubritzeko lau bisita gidatu es-



kinduko ditte Deban eta Zumaian. Antolatzaillien berbetan, "bisita hónek bisitarixa harrituko dau, inguru horrek dakan edertasun eta aberastasunagaittik. Gidari espezializatu batek lagunduta, ekosistema aberatsa ezagutzeko aukeria izango dabe: itsas izarrak, olagarruak, itsas erbixak... Urteeriak publiko zabalari eta 8 urtetik gorako umiak dituen famelixeri zuzenduta preparau ditugu. Bestalde, haizetan ibiltzeko oiñetako egokixak eta edateko ura eruatia komeni da". Bisitak 11:00etan hasiko dira eta euskeraz edo gazteleraz egitteko aukeria dago.

Erreserbak geoparkea.com webgunian edo, bestela, Deba-ko eta Zumaia-ko Turismo Bulegetan egin leikez.

Jesus Manuel Gómez Pérez Armerixan

Armerixa Eskolako Ikasle Ohiak urteko batzarra egin-gu dau datorren asteburuan, apirilaren 16xan eta programari aurreikusita ez eguan hitzaldi bat gehitu detse antolatzailliak: 13:15etatik aurrera Jesús Manuel Gómez Pérezek "Valores y actitudes para tu desarrollo personal y mejora empresarial: Valores para trabajar. Valores para vivir" izenburuari jarraituta jardungo dau eta bere hitzaldixa nahi daben guztiendako zabalik egongo da. Bestalde, bazkarira juateko asmu dakenak hillaren 12rako izena emon biharko dabela gogorarazi dabe.



autuan

ABIAN-EN BILLERIA

Ezker Abertzalia **ABIAN** prozesuaren barruan egiten ari dan gogoetaren harira, Eibarren hirugarren batzarra apirilaren 16xan egingo dabe, 09.30xetan Kultur.



"ADECAP-EK 25 URTE"

Atzo zabaldu eben Armagintzaren Museuan hillaren 30era arte ikusgai egongo dan "ADECAP Elkarteak 25 urte" erakusketia. Horrekin ospatuko ditte alkartiak mende laurdeneko ibilbidia eta erakusketan euren historixan mugarri haundixenak izan diranak bildu eta modu kronologikuan presentau ditue, 1991. urtian Donostian egin zan 'Kontrapasa'ren aldeko manifestaziño jendetsuarekin hasi eta 2015. urtian alkartia Bruselara aillegatzia lortu eban arte.



Funeraria-Ehorztetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

OSKAR ileapaindegia eta bizartegia



943-208125

Bidebarrieta, 64



20 URTEKO ESPERIENTZIA
 gizonezkoen ileapaindegian eta bizartegian

ESTETIKA ETA LASER DEPILAZIO zerbitzu osagarriak

Itzuliak trafiko aldaketak eragingo ditu

Euskal Herriko Itzuliak aldaketa haundixak eragingo ditu gure herriko trafikuan gaur eta batez be bixar. Gaur Itzuliaren 5. etapia Arraten amaituko dala eta, ezin izango da aparkatu hainbat tokittan. Aurten lasterketako azken etapia, 16'5 kilometroko bixarko erlojupekua, Eibarren jokatu dar: txirrindulariak Urkizutik abiatuko dira, Azitainetik Arrate igo eta, atzera be Eibarrera jaitsi eta gero, Ziriako Agirre eta Karlos Elgezua kalietatik saihesbidia hartu, Estaziñotik urten eta Toribio Etxebarriara juango dira, han helmugaratzeko.

Hori dala eta, erdigunia 12:00xetan itxiko dabe trafikua erandako (ordurako

automobillak kendu biharko dira). Horrekin batera, ezin izango da toki hontan aparkatu: Urkizun (alde bixetan); Karmen kalia (Fausto taberna parian); Barakaldon (1-7); Txontan (1-4-6-8 eta 14tik 22ra); Bittor Sarasketan (Fiat egon zan tokittik Matsariraino (poligono osua barne); Karlos Elgezuan (6. zenbakittik saihesbideraino); Errebalen (karga eta deskargarako tokixan); Julian Etxeberrian (5-7 eta 2-4-6).

Horrekin batera, lasterketia jokatzan dan bittartian, 13:00etatik 18:00etara, kale hōnek trafikua erandako itxitta egongo dira: Abontza-bide, Aldatze, Amaña, Arane, Ardantza, Arikixaneko zubia, Arragueta, Arrate-bide, Asua-Erreka, Azitain-bide, Barakaldo, Barrena, Barrenengua, Bidebarrieta, Bittor Sarasketa, Blas Etxeberria, Eguzki-begi, Errebal, Estaziño, Fermin Calbetón, Gisastu-bide, Ibagain, Ibarburutze plaza, Iparragirre, Jardineteta, Julian Etxeberria, Karlos Elgezua, Karmen, Legarre, Legarre-gain, Matxaria, Mekola, Merkatu, Miraflores, Murrategi, Muzategi, Pagaegi, Paseo de Galicia, Plaza Barria, San Agustin zeharra, San Juan, Saratsuegi, Tiburzio Anitua (1-3), Toribio Etxebarria, Txonta, Urkizu, Urtzaille, Wenceslao Orbea, Ziriako Agirre, Zuloaga-tarren eta bariantia eta Azitaingo poligona be itxitta egongo dira. Eta, horrekin batera, antolakuntzaren premiñeri erantzuteko, Untzagako jubilaru etxiak jendiarendako atiak itxitta eukiko ditu gaur eta bixar.



Herri osua seiñalez beteta ikusi ahal izan dogu egunotan. **Silbia**

Mozal legiak zigortuta

Naroa Ariznabarretaren atxiloketaren harira Eibarren egindako protestan argazkixak etara zittuan ARGIAko kazetari bat 601 euroko isunarekin zigortu dabe Mozal Legea aplikauta. Lege hori hola aplikatuta Euskal Herriko kazetari bateri jarritako lehen zigorra da. Espaiñiako Gobernuak Gipuzkoan dakan ordezkariordearen izenian bialdutako salaketiak jasotzen dabenez, "baimenik gabe" polizia operaziño batian irudixak sareratu zittuan Axier Lopez kazetariak eta horregaittik zigortu dabe. Atzo horren barri izan eta segiduan, alkartasuna eta babesa adierazteko mezu mordua jasotzen hasi ziran ARGIA.



Ikastaria lau zapatutan emongo dabe Andretxean eta inguruko mendixetan.

Mendixan ez galtzeko

Andretxeak udabarrirako antolatu dittuan Jabetze Eskolaren ikastaruetako azkena "Orientazioa mendian" izenburukua da. Maiatzaren 7xan eta 21xan eta ekaiñaren 11xan eta 18xan emongo dabe (zapatuak), 09:00etatik 14:00xetara, Andretxean eta inguruko mendixetan. Izena emoteko epia zabalik dago eta interesa dakenak apirillaren 27ra arte eukiko dabe horretarako aukeria, Pegoran. Hezitzaillia Patri Espinar izango da eta, aurreratu dabenez, "taillarrian jabetza eta autonomixia, auto-estimua, auto-ezagutza eta geure buruarekiko konfidantza modukuak landuko dittugu. Jakiña, hori guztia mendixan zelan orientatu ikasten dogun bittartia". Informaziño gehixago nahi izanez gero andretxea@gmail.com helbidera idatzi leike edo, bestela, 943 70 08 28 telefonora deittu.



Proiektuen Azokia

Bixar 09:15etatik 18:00etara Proiektuen Azokia egingo dabe Biharran-en (Ubitxa, 16). Programia hauxe da: 09:15/10:00 Aurkezpena; 10:00/10:30 Proiektuen Azoka (K)idea; 10:30/13:15 Praktika / Proiektuen aurkezpena; 13:15/14:30 Katering-a / Tokian tokiko ekoizliak; 14:30/17:15. Ikasketak / Komunikaziñua, kudeaketia, iraunkortasuna eta baloriak; 17:15/18:00. Baloraziñua; 18:00/18:15 Agurra. Informaziño gehixago nahi izanez gero proiektuenazoka.org helbidian begiratu.

TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO

Suhiltzailliak martxan

Euskadiko Suhiltzailliak herritarreri eskintzen detsen zerbitzuaren prekarizaziñua ekarriko dabena Eusko Jaurlaritzaren lege-proiektua bertan behera lagatzia eskatzeko mobilizaziñuekin segitzen dabe eta, aldarrikapen horren harira, apirillerako martxa antolatu dabe. Martitzenetik barixakura bittartian bizikletaz eta oiñez egingo dituen martxak Bizkaia eta Gipuzkoa ziherkatuko ditue, hiru etapatan, eta hillaren 15ian Araban, Gasteizen helmugaratuko dira. Horrekin batera, egun bakotzeko etapa amaitzian hainbat jarduera egingo ditue (Gipuzkoan, Zarautzen, Eibarren eta Arrasaten). Eibarren datorren eguaztenian (apirillak 13an) egongo dira, 17:00etatik aurrera Untzagan: puzgarriak, marrazki lehiaketak, photocalla, ur-jokuak... antolatu ditue nahi dabena guztiendako.



Diputaziñoko udalekuetarako izen-emotia



Apirillaren 12ra arte egongo da Foru Aldundiko udalekueetan parte hartzeko izena emoteko aukeria. "Udalekuak" izenekuak 7-13 urte bittartekueendako eskintza batzen dau eta "Gazte Oporraldiak" izenekua, barriz, 14-17 urte bittartekueendako jarduerak osatzen dabe. Programa bakotxaren inguruko informaziño zihetza www.gipuzkoan-gazte.eus helbidian begiratu leike eta nahi dabena izena emoteko aukeria be badaka. Izen-emoteko epia itxitta, plaza guztiak apirillaren 18rako banatuko ditue (zozketa bidez) eta plaza eskuratzen dabena behin-betiko izen-emotia apirillaren 19tik 28ra bittartian egin biharko dabe. Informaziño gehixagorako 943 445 980 telefonora deittu edo udalekuak@gipuzkoa.eus helbidera idatzi.



Maite Agirregomezkorta Zubiaurre

(2016-IV-3)

Familiaren izenean, ESKERRIK BEROENA gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



Ane Ojanguren eta Manu Ledo eibartarrek eurentzako "alor guztietan oso garrantzitsua izan den erabakia" hartu zuten eta Aste Santuan errefuxiatuei laguntzera abiatu ziren Greziako Lesbos irlara boluntario bezala. Aurretik ere laguntza eman izan dute, baina inora joan gabe eta, oraingoan, beste pausu bat eman nahi izan zuten bi lagunek. Kolaboratu nahi izan duten eibartarrek emandako 6.000 euro hara eraman dituzte eta, besteak beste, gurea benetan herri solidarioa dela adierazi dute.



Bidean galduta aurkitu zuten 16 urteko gaztea kanpamendura eraman zuten.

ANE OJANGUREN ETA MANU LEDO (boluntarioak):

"Sumindura sortzen badu ere, galdu ezin den esperientzia izan da Lesboskoa"

- Zergatik sentitu zenuten Lesbosera joateko beharra?

Irailean etxean errefuxiatu bat hartzea pentsatu nuen, baina Pariseko atentatuaz geroztik, ezingo zirela ailegatu ikusita, bertara joatea erabaki nuen. Manuri ideia proposatu eta ados zegoela esan zidan. El-goibarko bikote bat ezagutu genuen eta eurek izandako esperientzia kontatu ziguten, baita bidaia nola egin eta antolatu zuten ere. Urtarrilean joatekotan egon ginen, baina familia eta lan kontuak zirela eta, Aste Santua izan zen guretzat Lesbosera joateko momentu onena.

- Haurrak eramateko oihalak banatu zenuzuten errefuxiatuen artean...

Uste dugu eurentzat oso garrantzitsua izan zela hori. Europara ailegatzeko bidaia jarraitu behar zuten eta umeak eramateko motxilatxoek gauzak asko errazten zizkieten. Janaria eta erropak eramateko elkarte eta Gobernu Kanpoko Erakundeak bazeuden eta ideia hau benetan baliagarria zela iruditu zitzaigun. 60 bat banatu genituen. Ikaragarria da nola eskertzen duten laguntza guztia.

- Nolako izan zen bertara iritsi zineten momentua?

Momentu gogorrean ailegatu ginen, Turkia eta Europaren arteko akordioaren lehen egunean. Ordura arte GKE-k kudeatzen zuten kanpamendua eta egun hartan Greziako poliziek GKE-ak botatzeari ekin

zioten. Gu orduantxe ailegatu ginen eta errefuxiatuak kanpamentutik kanporatzen joan ahala, guk haurrentzako oihalak banatzea lortu genuen. Hasieran ez joatea gomendatu ziguten, baina guk erabaki genuen hori zela geure momentua. Horrela konturatu ginen benetan zein garrantzitsua zen egiten ari ginena. Euren begiradetan ikusten zen egiten genuena zenbat eskertzen ziguten.

- Beldurrik sentitu zenuten?

Ez, momentu batean ere ez. Euren beharrak ikusita beldur guztiak uxatzen dira. Errefuxiatuen egoeraren berri emateko irudi gordinenak erakusten dituzten hedabideek jendearengan beldurra sortzen dute. Sentsazionalismoak ezkutatu egiten du boluntarioen lana eta kalte handia egiten du, izan ere, laguntza emateak duen garrantzia ikusezin bihurtzen da. Egoera gogorra da zalantzarik gabe, baina beste ikuspuntu batetik enfokatu behar litzateke.

- Nola laguntzen dute bertara joandako boluntarioek?

GKE-k aukera asko ematen dituzte parte hartzeko, norberak aukeratzen du zer egin; hondartzak garbitu, jatekoa presta-

tu... nahikoa askatasun duzu lagundu nahi duzun modua aukeratzeko. Dena dela, beti ibili behar da errefuxiatuen atzetik. Turkiara deportatzen badituzte, adibidez, boluntarioak ere Turkiara mugitzen dira.

- Zer sentsazioekin bueltatu zarete?

Lagun asko egin ditugu, batez ere afganiarrak, eta nola tratatu dituzten eta kartzelara nola sartu dituzten ikusita amorrutik handiarekin eta haserre bueltatu gara. Ez dugu ulertzen, adibidez, nola izan daitekeen horren laguntza urria errefuxiatuak Turkiatik ekartzeko orduan eta errefuxiatuak Turkiara bueltan bidaltzeko, berriz, nola dagoen hainbeste segurtasun eta ferry. Onartezina da nola urratzen diren Europar hainbeste defendatzen dituzten giza eskubideak. Bertan zaudenean zure lana eskertzen duen jende inguratuta zaude eta hori pozik hartzen da, baina buelta sumindurik egiten duzu, atzean lagatuko egoera zein den ikusita.

- Zer esango zeniekete laguntzeko goa dutenei?

Galdu ezin den esperientzia dela. Errefuxiatuak eta horien esperientziak eta bizitzak ezagutzea ikaragarria da. Jende asko ezagutzen da, baita mundu guztiko erakunde eta boluntarioen lana ere. Facebooken orrialde bat zabalduko dugu laster, interesatuta dagoen jendeak gure esperientzia ezagutu eta boluntario joan nahi badute informazioa eskura izan dezaten.

"Hedabideek ematen dituzten irudi latzek beldurra sorrarazten dute eta horrek boluntariora kaltetzen du"

1931ko apirilaren 14an gure herrixak bizitasun berezixa izan zeban. Interneten eta halakuen susmorik be ez oindiokan eta, emoten dabenez, txarto ulertutako mezu batzuk bultzatuta, segurutzat emon zan II. Errepublikaren lehelengo proklamaziñua egin zan Eibarko Udaletxian. Horrek emon desku Hiri titulua be, geruago frankismuarekin kendu zeskuena, Franco hildakuan barrero berreskuratzeko. Herrixak bizi izan daben egun handixenetako hura urtero gogoratzen bada be, bost urtetik behiñ egitarau berezixarekin gozatzeko aukeria izaten dogu. Aurten esaterako.

85 URTE

Udaletxeko balkoia munduratu zala

Apirillaren 14an II. Errepublikia Eibarren beste iñun baiño lehen aldarrikatu zala 85 urte beteko dira eta, hori gogoratzeko, udalak hillabete osua beteko daben egitaraua prestatu dau. Horren barri emoteko martitzeneko prentsaurrekuan azaldutakua-aren arabera, aurtengo egitarauaren ardatz edo gai nagusi-*xa "Errepublikia eta andrak"* izango da: *"Emakumiak parte-hartze zuzena izan zeben Errepublikian eta sasoi hartan hainbat eskubide eskuratu zebela gogora ekarri nahi dogu"*. Boto eskubidia izan zan horretako bat eta hori irudikatzen daben Indalezio Ojangueren argazki-xak, Euskal Estatutuaren plebisitua zala-eta 1933ko azaruaren 5ian egindakuak, garrantzi berezixa izango dau datozen egunotarako prestatu daben egitarauaren barruan. Izan be, Aginagako basarritar batzuk udaletxian botua emoten erakusten daben erretratu *"sufragio unibersalaren eta*

emakumien bozkatzeko esku-bidiaren ikur" bihurtu dala azaldu zeben aurkezpenian.

Hori dala-eta, argazkixaren inguruko jarduerekin batera, bes-telako ekintza ugari izango dira apirillean. **Juan San Martin liburutegixak "Andrak eta Errepublikia" izenburuko interes-gunia** eta irakurketa gida bilduko dittu apirilaren 30era arte, sasoi hartan garrantzi haundixa izan zeben Clara Campoamor, Margarita Nelken, Mercè Ro-



doreda, María Moliner, Zenobia Camprubí, Dolores Ibarruri eta beste batzuk gogoratzeko.

Bisita gidatuak

Apirillaren 11tik 29ra bitartian, "Argazki baten istori-xia" izenburuari jarraituta Indalezio Ojangueren argazkixaren inguruko bisita gidatuak eskinduko dittue udaletxian, *"berreziki DBHko ikaslientzat"*. Bisita guztiak Nerea Alustiza historialarixak gidatuko dittu: *"Bisita*

bakotxian, udaletxiaren aurrian Eibarren II. Errepublikia zelan aldarrikatu zan azalduko da. Horrekin batera, argazkixaren erreprodukziñuarekin 'photocalla' egingo da udaletxeko patixuan eta udaletxeko balkoia bisitatzeko aukeria be izango da". Bisitiak 40 miñutuko iraupena izango dau eta izen-emotia apirilaren 22ra arte egin leike, 943-708435 zenbakira deittuta edota kultura@eibar.eus helbidera idatzita.

Bestalde, **Garbiñe Biurrun epailliak "Emakumia, Eskubidiak eta II. Errepublikia" hitzaldixa** eskinduko dau apirilaren 11n, 19:30ian, Portalean. Hurrengo egunian (martitzenian, hillaren 12xan) Ego Ibarra batzordiak argitara emon daben **Santiago Arizmendiariaren "Mis memorias. La guerra civil española: 20 meses prisionero"** liburua aurkeztuko dabe udaletxian, 19:30ian.

Apirillaren 13an, barriz, Portaleak "Biblioteca en guerra", María Moliner eta misio



Martitzenian aurkeztu eben Udalak proklamaziuaren inguruan prestatutako egitaraua.

pedagogikuen inguruko Liburu-tegi Nazionalaren dokumentalaren proiektziua hartuko dau, 19:00etan hasitta.

Ibilbide historikua

Programaziñuaren barruan, **Jesus Gutierrez historialarixak gidatuta lau zapatutan** (apirillaren 16xan, 23an, 30ian eta maiatzaren 7xan) "II. Errepublikaren Eibar" izenburuko ibilbide historikua eskinduko dabe: 23kua eta maiatzaren 7kua euskeraz egingo ditte Gutierrezek. Saio bakotzak hi-

ru ordu iraungo ditte eta 20 bat laguneko taldiak, Untzagatik abiatuta, Errepublika sasoko tokirik esanguratsuenak bisitatu ditte. Interesatuak apirillaren 12ra arte emon leike izena, 943-708435 telefono zenbakira deittuta edota kultura@eibar.eus helbidera idatzita.


Eta, egitaraua biribiltzeko, **Tanttakak "El Florido Pensil-Neskak" taularatuko dau Coliseuan, apirillaren 21ian, 20:30ian.** Sarrerak 10 eurotan salduko dira.



"Frankismoa Eibarren"

Apirillaren 19xan

Martitzen horretan 19:00etan, **JOSU IBARGUTXI** eta **JESUS GUTIERRE-Zen** eskutik, hitzaldi-mahainguru antzerakua egingo da ...eta kitto! Euskara Elkartian. Bertan frankismoak Eibarren izan zeban eragiñaz jardungo dabe. Bost urteko tartian, aldarrikapen egunaren iruditik beste muturrera pasau zan Untzaga: 37ko apirillaren 26xan tropa faxistak sartzian Untzaga hutsik eguan.



Liburua eta antzerkixa

Santiago Arizmendiarieta Eibarko gizon errepublikanaren prototipua izan zan eta Errepublika eta gerraren hasieria zuzeniaz ezagutu zittuan. Karta mordua idatzi zittuan eta, bera hiltzian, Olga alabak donaziñua egin eban: horrekin etara dabe liburua. Bere idatzixetan errepublikak galtziak zer ekarri zeban lehen pertsonan kontatzen dau: julixuaren 18xan institutuko gelak itxita eguzela kontatzen dau (bera bedela zan) eta radixotik Pasionariak esandakua ("Es preferible morir de pie a vivir arrodillado"), jendiarri janarixa banatzeko "comisaría de abastos" sortu zala... Liburuaren 1.000 ale papelian argitara emongo dabe, 100 argazki baiño gehixagorekin eta, hortik kanpora, 400 orritik gorako liburuaren ediziño elektronikua, egoibarraren webgunian duan. Liburuaren prologua Javier Rodrigo historiadore katalanak egin dau.

Urteroko ekitaldixak

- PSE-EE

Apirillaren 14an.- Eguardixan balkoian (Casa del Pueblon) bandera igo, eta txapliguak Txaltxa Zelaixan.

- Ahaztuak 1936-1977

Apirillaren 14an.- 20:00etan, ekitaldixa Untzagan. Dantzariak eta kantariak (Reuelta eta Etxebeste).

- Gazte Komunistak

Apirillaren 17xan (domekan).- 12:00xetan, Ezker Anitzaren ekitaldi nagusixa, Cayo Lara IUko koordinatzaillae orokorrarekin. Antolatzaillia: Ezker Anitza.



"El Florido Pensil-Neskak" lanak gerraondoko Espaiñiako hezkuntza sistemaren krudeltasuna jasaten daben bost neskatoren egunerokua kontatzen dau. Eskolia gizartiaren ideologia menderatzailiaren isla zan. Bi emakume mota zeguazen: zintzuak eta bestiak.

Timoteo Lazpita Areitiobiritxinaga (2016-IV-1)



ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTEAN.

Familiaren izenean, **ESKERRIK BEROENA** gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



Emakumiak II. Errepublikako sasoian lortutako eskubidiak

Espainiako II. Errepublikako Konstituziñua (1931)

25. artikulua: "Ezin izango dira pribilegiu juridikorako oinarri izan: izaeria, filiazioa, sexua, gizarte-klasia, aberastasuna, ideia politikuak eta siñesmen erlijiosuak. Estatuak ez dau bereizketarik onartzen ezta noble-titulurik be"

36. artikulua: "Sexu bateko zein besteko 23 urtetik gorako herritarrek hauteskunde-eskubide bardiñak izango ditue, legiak ezartzen dabeneren arabera"

40. artikulua: "Españiar guztiak, sexu-bereizketarik egin gabe, onargarriak dira enplegu eta kargu publikuetarako, euren meritu eta gaitasunen arabera, legiak ezartzen dituen bateraezintasunak izan ezik"

43. artikulua: "Fameliaria Estaduaren babes berezixaren mendian egongo da. Sexu bixentzako eskubide-bardintasunian oiñarrizten da ezkontza, eta desegin ahal izango da alkarren adostasunez edo ezkontide bixetako edozeiñek hala eskatuta, argudiatuta, kasu horretan, bidezko arrazoia"

53. artikulua: "Diputatu izateko hautagarri izango dira 23 urtetik gora dituen Errepublikako herritar guztiak, sexu edo egoera zibillarengaitik bereizketarik egin gabe, hauteskunde-legiak ezarritako baldintza guztiak betetzen badi-tue"



Mahaiko presidentia: Pastora Madina Corta. Eskumara, Isaias Cañizal (kontu-hartzaillia), Ezkerrera, Cleto Loidi (Udaletxeko konserjia), Maria Magunazelaia (bozketaren lekukua) eta Garitaonaindia (Elgetako aguazilla). Botoemotailiak: Josefa Gervasia Agirrebengoa (Agiña Azpiko basarrikua), Josefa Suinaga (Suinaga basarrikua), M^a Josefa Atxa Belaustegi (Agiña Gaiñekua) eta Isidro Arano (Arando Iturralde basarrikua).

Eibarko andrak AITZINDARIXAK

1933ko azaruaren 5eko Erreferendum autonomikua Eibarko Udaleko eskoletan, Euskal Estatutuaren testu barrixa onartzeko. Hauteskunde batzuetan euskal emakumiak bozkatzeko eskubidia euki zebeñ lehen aldixa izan zan. Estaduko beste lekuetan handik 14 egunetara gauzatu zan eskubide hori, azaruaren 19ko hauteskunde orokorretan. Motibo horrekin eta aurtengo egitarauaren oiñarriztat irudi hori hartuta, Udalak postal berezi batzuk argitaratu eta kaleratuko ditte, oroigarri moduan, Errepublikaria gure herrixan aldarrikatu zala 85 urte betetzen diranian.

egitaraua

- 08:45 - 09:00:** Akreditazioa eta dokumentazioa
09:00 - 09:15: Ongi-etorria
09:20 - 10:05: "Gazteek ez dakite euskara hizkuntza gutxitua dela"
Xabi Aizpurua Ugarte, UEMA
10:10 - 10:55: "Etorkinen integrazioa eta bertakoen egokitzapena"
Jon Maia, bertsolaria
11:00 - 11:45: "Euskera, tresna eta aukera merkataritzan"
Estitxu Garai, EHU
ATSEDENALDIA
11:45 - 12:05: "Egian euskaraz bizi nahi dugulako"
12:05 - 12:25: "Aitziber Gurutzeaga", BAGERA
12:30 - 12:50: "Eskola eta familiak elkarlanean euskara ikasteko"
Elizabeth Lema, Eibarko Arrateko Andra Mari ikastetxea
12:55 - 13:15: "Eusle programa ikastetxearen esparruan aplikatua"
Juani Iriondo, Eibarko San Andres ikastetxea
13:20 - 13:40: "Gurasoei zuzendutako motibazio ekimena: bizia delako!"
Deñe Zabalo, Elgoibar Ikastolako Guraso Elkarte
13:45 - 14:40: "MAHAINGURUA": Xabi Aizpurua, Estitxu Garai, Aitziber Gurutzeaga, Jon Maia
 Dinamizatzailea: **Jaime Altuna**
14:40 - 14:45: AGURRA
14:45: BAZKARIA

Maiatzak 3, asteartea

EUSKARAREN
 TRANSMISIOA
 mintegia

IZEN EMATEA zabalik

www.etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus 943 20 09 18



Antolatzailea:

Babeslea:

Laguntzaileak:



Jon Trebiño eta Eneko Trebiño (Urbat-eko waterpolistak):

“Infantiletan egon arren nagusiekin jokatzan dugu”

Jonek 14 urte bete zituen urtarrilean eta Enekok datorren astean beteko ditu. Mogel Isasi ikastetxean DBHko 2. mailan ikasten dute, gela berean, eta txikitatik zaletasun bera daukate: waterpoloa. Horretaz gain, musika eta hizkuntzak ere ikasten dituzte. Urbat Waterpolo taldeko kirolari gazte hauek Aste Santuan lan bikaina egin dute Euskal Selekzioarekin Valladoliden izandako estatuko infantil mailako txapelketan. Valladoliden Jon Trebiño Txapelketako golegile nagusia izan da, Euskal Selekzioaren historiako lehen jokalaria horrelako txapelketa batean sari hau lortzen. Eibarko hiru neska ere –Jone Gomez, Irati Martin eta Elene Molina– han egon dira .



Jon Trebiño eta Eneko Trebiño, Urbat waterpolo taldeko jokalaririk bikainak.

- Zer moduz ibili zarete Valladoliden Euskal Selekzioarekin ?

Iaz ere han egon ginen eta esperientzia ona izaten da, oso giro ona egoten da. Aste Santua baino bi egun lehenago joan ginen eta 5 egun egon gara. Bosgarren postuan gelditu gara eta neskek seigarrenean.

- Noiz hasi zineten waterpoloan eta nolakoak dira entrenamenduak?

Hasieran igeriketa egiten genuen. LHko 3. mailan waterpolo probatzen joan ginen. Gustatu egin zitzaigun eta ordutik hor dihardugu. Astean 3 aldiz entrenatzen dugu gutxienez. Gimnasioan elastikoekin flexioak eta horrelakoak egiten ditugu, gero uretan igeriketa egiten dugu: abiadura eta erresistentzia lantzen ditugu. Beste batzuetan “hankak” egiten ditugu, uretan altu txutatzen. Eta amaitzeko txuteak edo partidua.

- Infantiletan egon arren nagusiekin jokatzan duzue...

Entrenatzaileak ikusi du ondo gaudela entrenatzen eta nagusiekin jokatzan utzi dugu. Jubenilekin eta ka-

deteekin dihardugu eta batzuetan seniorrekin ere bai. Normalean astean bi partidu izaten ditugu.

- Partiduak non izaten dituzue?

Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan jokatzan dugu. Gipuzkoan hiru talde daude bakarrik: Donostia, Irun eta Eibarren. Bizkaian gehiago daude. Eta Gasteizera ere joaten gara. Euskal Herrian waterpolo ez dago oso errotuta. Kataluniarekin konparatzen badugu, Euskal Herrian 16 ekipo daude eta Katalunian 48.

- Zapatuan senior taldeak partidu erabakiorra dauka, mailaz jaisteko arriskua dago, ezta?

Zapatukoa hil ala biziko partidua izango dugu, 14:30ean Orbean. Bidasoaren kontra jokatu dugu eta Euskadiko lehenengo mailatik bigarreneara jaisteko arriskua daukagu. Jendea etortzen animatu nahi dugu. Eta kirol hau probatu nahi dutenak lasai etor daitezke barixaku arratsaldeetan. Oso ondo pasatzen dugu eta giro ona daukagu. Gainera eskerrak eman nahi dizkiegu Davide Cerchi eta Jol Solagasitua entrenatzaileei gurekin egiten duten lanarengatik.



**San Andres
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Radio Eibar

C A D E N A

SER

104,0 FM



LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Gaizki amaitzen den gauza ederra da maitasuna?

Joan den eguaztenean, apirilaren 6an, 10:00etatik 12:00-etara, gazte eta nerabeen artean maitasun erromantikoak indarkeria matxistaren adierazpenetan duen eragina lantzeko lantegia izan zen Gaztelekuan. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta, proiektua Medicos Mundi Gipuzkoak (Farapi Koop. Elkartea eta EHUrekin batera) argitaratutako "Gaizki amaitzen den gauza ederra ote da maitasuna?" ikerketaren ondorioen erantzuna da.

Ikertzaileek zortzi emaitza nagusi atera zituzten: (1) Gazteen begietan egoera ideala bikotea izatea da; bakarrik egoitea porrotzat jotzen dute. Hala ere, (2) maitasunik ez dago gaztari ez bada, eta (3) kontrola (Whatsapp bidez, esaterako) normalizatu dago, beti bikotearentzat prest egon ahal izateko.

Ikerketaren arabera, nerabeek, oraindik ere, (4) harremanetan desberdintasunak ikusten dituzte sexuen artean, zeinak nabarmendu egiten diren sexuari dagokionean, kontuan izanda (5) gorputza desirazko kontsumo gisa ikusten dutela, emakumezkoena gehienbat.

Praktika sexuarekin buruzko informazio anitz izan arren, (6) ez dute nahikoa estrategiarik irizpide propioak babestu ahal izateko. Genero indarkeria, bestalde, (7) zuzenean eragiten ez dien kontua dela deritzote gazte hauek.

Eta azkenik, deigarriena izan da (8) homosexualitatea eta batez ere bisexualitatearekiko gaitzespen-jarrera, batik bat gazteagoen artean.

Asteazkenean burututako tailerra, beste alde batetik, hezitzaileei zuzendua izan zen, efektu biderkatzailea izan zezan;



hau da, hezitzaileekin lan egin zen, horiek, gerora, gazteekin sexua eta maitasunaren bueltan mezu positiboak landu eta zabaldu ahal izateko. Gaztelekuko bost hezitzaileekin egon ziren, eta bi orduko saioan lehen

esandako zortzi ondorioetatik bi jorratu zituzten.

Beste bi saio gehiago egingo dira. Lehena apirilaren 20an izango da, eta bigarrena oraindik ere zehazteke dago.



Trikitolari gazteak Irlandan

Aste Santuko jai egunak aprobetxatuta, Eibarko musikari gazteak Irlandan egon dira martxoaren 29tik apirilaren 2ra arte. Musika Eskolako eta Adolfo Jainagaren 37 ikasle osatutako taldeak, turismoa egiteaz gain, emanaldia eskaintzeko aukera izan du bidaiari: Dublinen, The Cobblestone pubean soina eta panderoa jo zituzten "emanaldi ederra izan zen eta kantatu eta dantzatu ere egin genuen. Gainontzeko egunetan, berriz, Irlanda ezagutzeko tarte hartu genuen".


NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA



Toribio Etxebarria, 22
Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850

667 54 89 16 (Ritxar) kolorlan@hotmail.com



KOLORLAN
PINTURAK

Osasun gida

Dentistak

arat
Hortz-Klinika

ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

Clinicas dentales **UniverSalud**

TORIBIO ETXEBARRIA, 4 - 1. esk. Telf: 943 20 18 51

RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

RPS: 53/13

bista eder
clínica dental - hortz klinika

Asko dira
gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak

20.000tik GORA PAZIENTE
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82

hortz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

EIBAR HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea
RPS 195/11

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkitzu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

GASTESI
Hortz-Klinika
Ane Gastesi

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10 - 2. eskuma 943 70 00 90

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA



- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika

abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Fisioterapeutak

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAQUETA, 20
Tlf.: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA

Ginekologoak

M^a Jose Ruiz de Porres
DOKTOREA

- Bularren azterketa
- Minbiziaren azterketa prebentiboa
- Zitologia
- Baginako eta sabelaldeko ekografia
- Mamografiak
- Bularretako ekografia
- Nerabeentzako arreta
- Menopausiadunentzako arreta
- Dentsitometriak
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

T. Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943 20 28 57

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



Isasi, 17 - 1. esk.
943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Degluzio atipikoa
Disfonia
Ikaste-arazoak

Arreta arazoak
Berba arazoak
Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

Berba
Logopedia

AIDA CORTA ANTÓN

Ebaluazioa eta tratamendua:

- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

SAN AGUSTIN, 2-4 (B. ONA)
Mobila: 622-629-544
logopeda@berba.es

Okulistak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuareta
943 20 19 82



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologí Klinika

Presbiziaren kirurgia.

R.P.S. 234/13



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia



T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746


PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOA

Maider Lopez Etxebarria



Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41



Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
www.centroamets.com

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoan
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

Maialen Hernandez
PSIKOPEDAGOGOA

- Lengoia trastornoak
- Gizarteratze arazoak
- Autoestima arazoak
- Hiperaktibitatea
- Autoestima arazoak
- Dislexia

Tel. 605 75 75 06

Arantza Alvarez
Psikologoa-Sexologoa
1517 - GZ Kol. zbkia.

www.centrodesexologia.com
Tfnoa. 645 73 23 88

KONTSULTAK: Eibar / Durango / Donostia



AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

..... (Ume eta helduendako)

Ana Artamendi

- Afasiak
- Disfoniak
- Dislexiak
- Dislaliak
- Degluzio atipikoa
- Hizmoteltasuna
- Eskola arazoak

T. Etxebarria, 10 - 6. esk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com



Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. esk. EIBAR
Zuberoa, 4 ZARAUTZ
Tel. 943 831 618



Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023





Jose Manuel Diaz nagusitu zen Valenciaga Oroitzarrean

Jaengo txirrindularia Lizarte talde nafarra baino gehiago izan zen eta aurrea hartu zien bere atzetik sailkatutako talde bereko lau txirrindulariei: Richard Carapaz 17 segundora helmugaratu zen eta Jaime Castrikkok, Oscar Rodriguezek eta Sergio Samitierrek osatutako hirukotea 25era. Ixuako gainak erabaki zuen beste behin Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatzen duen Espainiako Koparako baliagarria den proba, baina oraino ez zuen irabazi mendate hori hobetoen igo zuenak, hobeto jaitsi zuenak baizik. Behin alde aurretiko ihesaldiak neutralizatuta, Ixuako gainean Carapaz ekuatoriarra 15 segundoko aldearekin pasatu zen, baina jaitsieran Extremadura taldeko Diazek harrapatu zuen eta baita aurrera jo ere: Atzetik Lizartekoe, proban nagusi izan baziren ere, ezin izan zuten berarekin bat egin. Taldeka nafarrek irabazi zuten eta mendia, tarteko helmugak eta sprint bereziak talde bereko Marcos Rojorentzat izan ziren, lehiakortasunaren saria Seguros Bilbaoko Oscar Cabedok irabazi zuen eta eskualdeko onena Debabarrenako Victor Cordon ermuarra izan zen. Espainiako Kopako sailkapenean Jose Manuel Diazek hirugarren postura egin du jauzi, Gonzalo Serrano liderrarengandik 27 puntura.

Otxoa Memoriala jokatu da etzi

Aurreko domekan hasitako txirrindulari asteari amaiera emateko, Otxoa Oroitzarrearen 56. edizioa jokatu da domeka goizean. Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatutako kadete mailakoentzako probak 63 kilometro izango ditu eta, Untzagatik 10:30ean abiatuta, Urkizun amaituko da 12:00ak inguruan. *"Aurretik Elgoibarreraino joko dute, han buelta eman eta Maltzagatik Oñatiraino; hango errotondatik Eibarrera etorriko dira zuzenean"*. Bestalde, Euskal Herriko Itzulien bosgarren etapa gaur Arraten amaituko da eta bihar erlojuz kontrakoa jokatu da: Urkizutik irten eta, Arratetik pasatuta, T. Etxebarrian amaitzeko.

Gipuzkoako 47. Hiru Txirilo bolo txapelketa hasiko da bihar

Elgoibarko San Pedro bolatokiak hartuko du txapelketa horretako lehen jardunaldia, ohikoa denez 17:00-etan hasiko den tiraldiarekin. Txapelketak bederatzi jardunaldi izango ditu, zapatuero jokatzekoak, eta ekainaren 4an amaituko da. Egutegia honakoa izango da: Elgoibarko San Pedro (apirilak 9), Elgoibarko San Miguel (apirilak 16), Azpeitiko Garmendipe (apirilak 23), Eibarko Asola Berri (apirilak 30), Azkoitiko Floreaga (maiatzak 7), Debako Lastur (maiatzak 14), Elgeta (maiatzak 21), Sorraluzeko San Andres (maiatzak 28) eta Bergarako San Joxepe (ekainak 4). Edozer gertatuta ere, Asola Berri izango da ordeko bolatokia.



Aitor Montero pilotuak podiuma lortu zuen Albaceten

Eibarko motorzaleak podiumera igotzeko *"ametsa"* bete zuen Albaceten Gaztela-Mantxako Motoziklismo Federazioak antolatutako proban. Bederatzi lasterketa jokatu ziren bost lurraldeetako federazioek prestatutako jaialdian eta Montero eibartarra hirugarrena izan zen FFCM 600 Kopa mailan eta bigarrena Master 600ean. Eguraldi kaskarrak markatu zuen jardunaldia eta *"VHC Liqui Moly Racing Team nire taldeak eta Arantzazu Guridi fisioterapeutak egindako lana"* eskertu zuen pilotuak.



CASILDA ALBERDI OTALORA (2016-III-26)

"Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa"
EZ ZAITUGU INOIZ AHAZTUKO

— BIRGINIAREN LAGUNAK —



Julen Garro eta Edu Olabe xakelariak maila bikainean

Garro 11. postuan sailkatu zen Zornotzan jokaturako Euskadiko Txapelketa Nagusian, azken jardunaldietan indartsu amaitu eta gero: hasiera kaskarra izan bazuen ere, azken lau jardunaldietan hiru garaipen eta berdinketa lortu zituen eibartarrak. Santi Gonzalez bilbotarra izan zen txapelketa. Eta, Club Argentino de Ajedrez-ek antolatuta, Buenos Airesen jokaturako Aste Santuko xake aktiboko txapelketa, Edu Olabe eibartarrak bigarren postua eskuratu zuen. Ez zen hori Aste Santuko torneo bakarra izan eibartarrentzat: Donostiako Nazioartekoan, Julen Garro izan zen Klub Deportiboko ordezkari onena (33. postuan), Jon Aranaren (62) eta Jose Antonio Garridoren (84) aurretik.

Gipuzkoako Ligaren azken jardunaldia

Bihar amaituko da Liga Deporrek talde bientzat; etxean izango da gainera, Deporren (16:00etan). Maila Goreneko taldeak, jokoan ezer ez duela, Erretereriako Luzaro hartuko du. Eta 1. mailakoak, honek bai mailari eusteko helburuarekin, Andoaingoari egin beharko dio aurre.

Mailari eusteko larritasunak hainbat kirol modalitatetan

Beste hainbeste kiroletako hiru taldek mailari eusteko borrokan dihardute denboraldi amaieran. Horietatik bik iaz lortu zuten maila igotzea eta aurten berriari eustea gogorra egiten ari zaie: waterpoloan Urbatek azken aukera izango du bihar 14:30ean Orbean, Bidasoa XXI indartsuenaren aurkako partiduan; eta saskibaloian Katu Kalek, azken kartu-txoetakoaren aurrean izango da bihar 18:30ean Ipuruan Don Jabugoren kontrakoan. Larri dabil Avia Eibar Rugby Taldea ere, hori azken zapatuan zaletuen laguntasunarekin Unben Uribealdea gainditu zuela (22-7). Ligako azken partiduan, bihar A Coruña jokatu du, irabaztera behartuta.

Urpekari titulua lortzeko aukera

Modu erraz batean buzeatzen ikasteko aukera eskainiko du Eibarreko Klub Deportiboko Urpeko Ekintzak batzordeak hilabete honetako hirugarren astetik aurrera. Ikastaroan klase teorikoak eta igerilekuko saio praktikoak izango dira, Eibarren bertan, eta amaierako saio praktikoak, berriz, itsasoraino egingo dira. Kurtsoa amaituta, parte-hartzaileek Izar 1 urpekari titulua (CMAS 1 Star Diver) eskuratu dute. Bestalde, urpekaritza praktikarako beharrezko ekipoak (neoprenozko jantziak, urpekaritzarako botilak, etb.) Deporrek ipiniko ditu. Ikastaroa egiteko asmoa dutenek Klub Deportiboko bulegotik pasa daitezke eguenetan, 19:00etatik 20:00etara, 943-201904 edota 619468046 telefono zenbakietara deitu edo e-mailez subacuaticas@deporeibar.com helbidera jo.



Txoko bigarrenak erraz irabazi zion Durango liderrari foball-zaletuan

Aurreko zapatuan izandako emaitza horrekin liga txapelketaren sailkapena estutu egin da eta interesari eusten dio amaitzeko falta diren jardunaldi bietarako. Bar Txokok 3-0 argi irabazi zion Durangori, Conderen bi gol eta Ibairenarekin, eta orain Durango liderra bi puntura du. Itxaropena ere badu bigarren sailkatuak, azken aurreko jardunaldian Bar Areto teorikoki aurkari erraza izango duelako aurrean etzi 12:00etan jokatu den partiduan. Ez da hori izango Durango liderraren kasua, honek ere domekan (10:30ean), neurketa alde aurretik zailagoari egin beharko diolako aurre: Azkena Adahi aipaturako taldeen atzetik hirugarren sailkatua izango du aurrean. Beraz, liga hurrengo atteburura arte, azken jardunaldira arte, ez da erabakiko seguruenik.

Hilaren 17an lehen kanikrosa Aixolan

Marcán Huella I. Kanikrosa jokatu da hilaren 17an, domekan, Aixolako urtegiaren inguruan. Azken aldian gero eta jarraitzaile gehiago duen kirol modalitate hau guregana dator Marcán Huella txakurren babeserako elkartearen eskutik. Parte hartzeko 5 euro ordaindu beharko da Euskadiko Kutxako 3035 0048 61 0480068301 kontu zenbakian eta ingresoak egin aurretik e-maila bidali beharko da marcanhuella@gmail.com helbidera edo 688696415 telefono zenbakira deitu. Jardines janaridendan ere eman daiteke izena.



ARANTZA LARRAÑAGA IRURETA

“ESKERRIK ASKO BIHOTZEZ
zuen epel eta laguntasuna
eman diguzuenoi”


ETXEKOEK



Eibar FT-ren 75 urteak kontatzen dituen liburua aurkeztu zen atzo

200 orrialde eta 150 argazki (euretako %30 argitaratu gabeak) ditu Eibar FT-ren 75. urteurrenaren inguruan Jesus Gutierrezek egindako liburua. Liburua ez da mugatzen klubak egin dituen brillantetzko ezteietara, eta Eibarren foballa zelan sortu zen kontatzen du lehen atalak, 1911tik Gerra Zibilera artekoarekin; tartean dago Eibar FT-rekin jokatu barik, baina selekzioarekin jokatu zuen boskotea ere (Ciriaco Errasti, Roberto Etxebarria, Pepe Mugerza, Baltasar Albeniz eta Ramon Gabilondo). Bigarren atalean 75 urteko klubaren ibilbidea kontatzen da, Ligan eta Kopan egindako ibilbidearekin. Hirugarren atalak lporua zelaiaren, oinarrizko foballaren, emakumezkoen foballaren eta klubeko zaleen inguruan dihardu. Eta badago laugarren atal bat denboraldiz-denboraldi taldean izan diren jokalariei, entrenatzaile, presidente, goletzaile nagusi... datu guzti horiek azaltzen dituena, klubak lortutako tituluekin, Kopako emaitza guztiekin... ja-

rraitzaileei hainbat zalantza argituko dizkiena eta baita zenbait bitxikeri eskainiko ere. Gutierrez egilea historiagilea bada ere, "Eibarrek inoiz ez du irabazi bere lehen kopa" hel du zion lanari 2013ko urtarrilean, "Eibarrek Athletic Kopatik kanporatu ondoren". "1968tik dut Eibar FT-ko karneta, gizakia ilargira iritsi aurretik" dio, eta bere maitasun sentimendu hori liburuan jarri du handik eta hemendik jasotako datuekin batera: "Harreman estua dago hiriararen eta Eibar FT-ren artean, estilo berean jardun dutelako biek ala biek. Klubaren proiektua Eibarko baloreekin lotuta doa eta bilakaera hori urbanistikoki zein soziologikoki islatzen da". Horregatik eskaintzen die egileak tarte berezia lporuari ("ikur gisa") eta lau hamarkadatan (1933-73) foballaren ardatz izan zen Txaltxa-Zelaiari. Liburuan estamentu guztietako milaka lagun azaltzen badira ere, egileak "barkamena eskatu" nahi die "bertan egotea merezita" kanpoan geratu direnei eta, aldi berean, "liburua



Gutierrezen liburua salgai ipiniko dute Eibarko hainbat dendeaan. **Silbia**

herritarrena da, hori gustatuko litzaidake transmititzea" diosku. Gaurkotasunari helzteko ahalegina ondo nabarrituko du irakurleak: Gabonetan etorritako Ansotegi, Peleteiro eta Radosevic ere bertan daude-eta.

Eibar FT-k 59 milioi eurotan zenbatu du bere eragin ekonomikoa 1. Mailan

Aurreko asteko eguenean emandako prentsaurrekoan, Alex Aranzabal klubeko presidentea, Juan Angel Balbás Debegesako zuzendariak eta Miguel Angel Fontán Kantar Media News Intelligence enpresako zuzendariak kopuru horretara heltzeko datuak eskaini zituzten, hainbat partidatan banatuta. Zergetan 13'3 milioi euro ordaintzen ditu Eibar FT-ak, beste 8'4 milioi klubaren gastu eta obretakoak dira eta 3 milioi t'erdi Debegesak kalkulaturako herrian eta eskualdean duen eraginaren ondorio dira. Beste 34'2 milioi euro Eibar FT-ak komunikabideetan izandako presentziarengatik Kantar Media ondozotzatutako kalkuluak dira.

Aranzabal Eibar FT-ko presidentea esan zuenez, "2. Mailan BEZ kontzeptuan Eibarrek 580.000 euro ordaintzen bazuen, iaz 3 milioi ordaindu genuen eta aurten 7ra helduko gara urte amaierarako". PFEZ Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez, "kopuru handiena jokalariei kontratuena da, eta hor 350.000 eurotik iazko 2 milioira pasatu gara eta aurtengo 3'5 milioira". Gizarte Segurantzari ordaintzen zaizkion sosak bikoiztu egin dira eta, sozietate-zergen arloan, 2. Mailan 675.000 euro ordaintzen zuen aurten 2 milioi ordaintzen direnean. Foru Aldundiaren kutxetan klubak sartzten duen diru guzti horrengatik, baina, gauza gutxi jasotzen du ordainetan eta "1. Mailako beste euskal klubek euren estadioetan izandako inbertsioetan jasotako laguntzaren parean, gure kasuan ez da halakorik eman eta lporuako Ekialde Tribuna egiteko eskatutakolari erantzun digun erakunderik ez dago".

Obretarako eta hainbat zerbitzutako hornitzaileei ordaintzeko gastuak 8 milioi eurotik gorakoak dira eta, 2013-14 denboralditik hurrengora (2016-17ra), "1. Mailan jarraituko dugulakoan, kopurua %1000 igoko da". Lanpostuek ere gora egin dute eta, hiru denbo-



Balbás, Aranzabal eta Fontán aurreko asteko prentsaurrekoan.

ralditan, kluba 35etik 74 langile izatera pasatu da kirol arloan eta, kirol arlotik kanpo, 5 lagunetik 20ra.

Fontanek adierazitakoari jarraituz, bestalde, "klubak 2.300 berri sortu zituen aurtengo lehen hiru hilabetekoan, 976 milioi irakurle potentzialentzat. Horren kalkuluak publizitatean 34 milioi euroko eragina emango luke denboraldi osorako". Eta, nazioarte mailako telebistaren inguruko Repucom txostenaren arabera, Hong Kong-en ikusten dira gehien Eibar FT-ren partidua, Espainiaren eta Tailandiaren aurretik. Gehien ikusitako partidua Celtaren aurkakoa izan zen eta, txosten horren arabera, espainiarren %5ak Eibar du euren "hiru talde gogokoen artean".

Eneko Artetxek eta Gari Rodriguezek, 1989ko Opel Corsa batekin, "Atlas Solidarioaren Klasikoaren Rallyan" hartu dute parte martxoaren 19tik 27ra. Marokkon jokatu den proba hori aprobetxatuta, hango mendilerroko herri eta eskoletan erabili dezaketen materiala eraman dute. Tangerren hasi eta Onarazaten amaitu den "abentura" aspaldiko erara egiten dute, "zortzi egunetan Marokko zeharkatuz 20 urtetik gora dituzten autoekin". Hori dela-eta, ezin da nabigatzailerik, ordenagailurik, GPS-rik ez beste sistema elektronikorik erabili proba horretan. Horien ordez, "rutometroekin, ipar-orratzekin eta mapekin konformatu behar" izan dira Gari eta Eneko. Ibilbidean atariko etapa bat eta 300 bat kilometroko beste zazpi osatu dituzte.

Escuderia Eibar Off Road izenarekin bataiatu zuten euren abentura solidarioa eibartarrek.

Garikoitz Rodriguez "Txikito"-k pilotu lanetan jardun du eta Eneko Artetxe kopilotua izan da; euren aginduetara 27 urteko Opel Corsa GSi 1.6 izan dute. Eta hainbat enpresa eta denden laguntza izan dute proiektua biribiltzeko.

Erronkak lehen egunetik heldu zion "abentura" izenari eta eibartarrak larri ibili ziren Tarifan enbarkatzerakoan: "Euskal estiloko dilubioak harrapatu zigun eta autoaren motorra geratu egin zitzaigun. Eskerrak Balmasedako Borja eta Martari, euren Range Rover-arekin atoian eraman gintuztelako". Tangerretik irten ondoren, ez zuten arazo gehiagorik izan Meknesera eraman zieten atariko 350 kilometroetan. Autoaren egiaztapenak pasatuta, lehen etapari ekin zioten: elurra zela-eta bertan behera laga bazuten ere, osorik egin zituzten 230 kilometroak. Lokatza, elurra, igoera gogorrak... dena gainditu zuten paisaia sinesgaitzen artean, "jende zoragarriarekin egon gara eta euren artean hemendik eramandako erropa banatzen genuen". Hurrengo etapak oso gogorak izan ziren eibartarrentzat. Midelt-en hasi zutenean dunekin egin zuten topo, "areazko ekaitza txingorraldia bihurtu zitzaigunean; horrek eguneko bigarren zatia bertan behera lagatzera behartu zituen antolatzaileak".



Eneko Artetxe eta Gari Rodriguez: gogortasunari irribarre eginez.




Erfoudera ere ondo heldu ziren, "50 kilometro inguruko tartean abiadura handian ibiltzeko eta orientazioaz baliatzeko aukera aprobetxatuta. Gazteagoak ginen sasoiara bueltatu ginen", diote. Hurrengo etapak gogoragoak izan ziren eta, ikusita autoak sufritzen zuena, tramo batzuetan ez zuten parte hartu. Hala ere, paisaiatzeko eta "horren gutxiarekin zenbat poztzen diren" umeen artean eramandakoa banatzeko aprobetxatu zuten. "Esperientzia hori bizi guztirako gordeko dugu".

Azken etapetan hainbat arazo izan zituen gure hirukoteak. Ibai larregiarekin aurkitu ziren gauza onerako eta, autoa bustitzen zen bakoitzean, arazo larriak izan zituzten aurrera jarraitzeko. Horrela, beste parte-hartzaileen solidaritatea ere ezagutzeko aukera izan zuten eibartarrek eta "eurei esker gainditu genuen Atlaseko azken etapako Ouarzazateko azken tramo". Motorra berreskuratu eta autoa ondo sikatuta, azken 800 kilometroak egin zituzten Tangerrera bueltatzeko. Eibarrera goizeko 01:15-ean heldu ziren. Hala ere, jarraitzaile sutsuenak zain zituzten ongietorria emateko. Datorren urteko ediziora bueltatuko diren? "Horrelako auto batekin ez, gogorregia delako. Itzultzekotan, 4x4 batekin izan beharko da".



MARIXABEL IBARRA GARITAONANDIA

4. URTEURRENA (2012-IV-7)



Gure albotik juan ziñan, baiña zure irribarrea eta maittasuna beti egongo dira gure bihotzetan.

ETXEKOEN PARTEZ





MIKEL ARRIZABALAGA
(Mendizalea eta idazlea)

- Zertaz hitz egingo duzu Klub Deportiboan emango duzun hitzaldian?

Azken 35 urte hauetan mendiarekin zerikusia duten argitalpenak eta horien kontsumoak, komunikabideen jarrerak, norbanako, mendi elkarte eta federazioen jorkamoldeak, mendia eta euskal literatura-ren arteko harremanak eta abarren inguruan nire burutapenak azaltzen ahaleginduko naiz. Kasu guztietan euskararen presentzia nolakoa izan den eta nolakoa den gaur egun azpimarratzen saiatuko naiz.

- Zer sasoiatan ikusten duzu mendizaleatasuna Euskal Herrian?

Sasoi onean dagoela uste dut. Zalantzarik gabe herri ibiltaria gara eta nabarmena da mendizaleatasuna oso sustraiturik dagoela gure gizartearen. Geroz eta gehiago gara

“Euskal mendizaleatasuna kirola baino gehiago izan da”

Mikel Arrizabalaga Aizpuruak (Donostia-Eibar, 1957) **“Mendizaleatasuna eta euskara”** hitzaldia eskainiko du Klub Deportiboan apirilaren 14an, 19:00ean. Elkar Fundazioko kudeatzailea da 1997. urtetik. Martin Ugalde Kultur Parkeko arduraduna izandakoa, egun Ikaselkar argitaletxearen ediziozuzendaria da. Egunkaria, Berria eta Gara egunkarietan, Pyrenaica, Euskal Herria eta Nora aldizkarietan eta Euskadi Irratian mendiarekin zerikusia duten makina bat artikulua eta kolaborazio egin ditu. Bi liburu idatzi eta argitaratu ditu: **“Aitona Blas eta iratxoak”** (Elkar) haurrentzako ipuina eta **“Rutas y paseos por Aiako Harria y Artikutza”** (Sua).

gure herriko geografia margotzen duten gailur eta basoetara joaten garenak, baita urrutiko mendi garaietara ere.

Euskal mendizaleatasuna, bere ibilbide historikoaren une desberdinetan, kirola baino gehiago izan da, hizkuntzaren berpiztearekin edota jarduera politikoa, zientifiko eta kulturalarekin lotuta egon da. Horrela, euskal mendizaleatasuna, gure herrian gertatu diren aldaketa sozial, politikoa eta ekonomikoaren bilakaeran txertatu eta egokitu da.

- Zeintzuk izan daitezke mendiaren munduan euskara galtzearen arrazoiak?

Gure gizartearen eremu guztietan euskararen ezagupenak gorakada nabarmena izan du, baina ez gure hizkuntzaren

erabilerak, eta horrek kezkatzeko arrazoiak ematen ditu. Globalizazioaren eta inguruko estatuen hizkuntza menperatzaileen eragina nabarmena da eta aisialdiarekin lotutako jarduera guztietan gertatzen den legez, mendi jardueretan ere islatzen da egoera tamalgarri hori.

- Zein da mendia euskaraz bizitzeko bidea?

Bide bakarra dugu. Batzuek **militantzia** deitu izan diote, baina nik nahiago dut **konpromisoa** hitza erabiltzea, gure hizkuntzarekiko konpromisoa azaltzea, euskara izan dadila mendiaz gozatzeko tresna. 1980an munduko gailurrik altuenera iritsi ginen euskaldunak, baina zalantzarik gabe, oraindik bide luzea ibili beharra dugu euskararen gailurra zapaltzeko.



Bularretik Mintzora

Bularretik Mintzora egitasmoa 2016-2017. ikasturtean Eibar osora zabalduko dela eman dute aditzera arduradunek: *“Gaur egun lehen urratsak ematen ari da San Andres ikastetxea. Horretarako irakasleak formazioa jasotzen ari dira Itziar Zubizarretaren eskutik eta motxila ibiltaria ere martxan dabil, liburutegitik etxera eta eskolara joan-etorriak egiten. Liburutegian BM txokoa prest dago, kalitatezko liburu zoragarriak hornitua. Dena bide onetik doa eta are hobegotik joango da, datorren ikasturtean San Andresen zabaldu berri den ate honetatik beste ikastetxe batzuk ere sartuko baitira udalaren eta liburutegiaren babesarekin”.*



Artisten Elkarteko erakusketa Portalean

Eibarko Artisten Elkarrekin 50. urte betetzen ditu aurten eta horren harira erakusketa zabalduko dute gaur arratsaldean Portalean. Apirilaren 30era arte ohiko ordutegian bisitatzeko aukera izango da, martitzenetik domekara 18:30etik 20:30era. Gaur egun 170 bazkide dauzka elkarteak eta horietako batzuren artelanak batu dituzte erakusketan: teknika eta estilo desberdinak erabiltuta sortutako margoak, eskulturak, marrazkiak, grabatuak, argazkiak, zeramikak...

Plazatik Gaztetzera 15ean

Datorren barixakuan (apirilak 15) Plazatik Gaztetzera txapelketa abiatuko da Eibarren. Aurreko edizioetan egindakoaren bidetik, hamabosgarren edizio honetan ere zazpi saio egingo dira eta denera 32 bertsolarik hartuko dute parte. Datorren astean gure herriko gaztetzeari jokatuko den lehen kanporaketan lau bikote hauek jardungo dute: Manex Astigarraga eta Maddi Sarasua; Ane Zuazubiskar eta Maria Izaga; Aissa Intxausti eta Malen Amenabar; eta Aitor Salegi eta Antton Aizpurua. Afaria 20:30ean hasiko da eta saioa, berriz, 22:30ean. Afariko tiketak 7 eurotan eros daitezke Depor eta Be-leko tabernetan.



Larrain dantza ikastaroa

Maiatzean ospatuko den Euskal Jairako girotzen joateko, Arrate Kultur Elkartearen eta Klub Deportiboaren eskutik larrain dantza ikastaroa egingo da Kulturaldean, apirilaren 11tik maiatzaren 23ra bitartean, astelehenean 19:00etatik 20:30era. Izena emateko Arrate Kultur Elkartearen bulegora joan edo 943 202 299 telefonora deitu daiteke (astelehen, martitzen eta eguenetan 10:30etik 12:30era eta eguaztenetan 17:00etatik 19:00etara) edo, bestela, arratekultu@gmail.com helbidera idatzi.

"Ketuekin jolasean" ikuskizun-dastaketa

Apirilaren 20an arratsaldeko 19:30ean "Ketuekin jolasean" ikuskizun dastaketa egingo da Topalekuan, Oskar Trebiño sukaldariaren eskutik. Parte hartu nahi duenak aldeaz aurretik izena eman beharko du, Arrate Kultur Elkartearen bulegoan edo 943 202 299 telefonoan (astelehen, martitzen eta eguenetan 10:30etik 12:30era eta eguaztenetan 17:00etatik 19:00etara) edo, bestela, arratekultu@gmail.com helbidera idatzita.



Debabarreneko Orkestra Sinfonikoa

Apirilaren 29an, 20:30ean, Coliseo antzokian egingo den Debabarreneko Orkestra Sinfonikoaren aurkezpen-kontzerturako sarreraren salmenta hasi da: nahi duenak emanaldirako txartela 10 eurotan eros dezake, Coliseoko leihatilan (astelehenean 19:00etatik 20:00etara eta barixakuetan 21:00etatik 22:00etara) edo www.kutxabank.es helbidean.

Sare sozialen kurtsorako izen-ematea



UEU-ren "Ikasi zure proiektua sare sozialen bidez ikusarazten" ikastaroan izena emateko azken egunetan sartu gara, apirilaren 12an Markeskuan klaseak hasiko dira eta. Irakaslea Libe Mimenza izango da eta sare sozialek lan-mundurako dauzkaten abantailak ikasleei ezagutzera emateaz gain, erabilera eraginkorra eta ona barneratu dezaten ahaleginduko da. Informazio gehiagorako edo izena emateko www.ueu.eus webgunera jo daiteke.

Bertso Afaria Kultur

Eguazteneko tabernako saio arrakastatsua eta gero, Arrate Kultur Elkartearen "Bertso Astea" programa agurtzeko, gaur bertso afaria egingo dute Sustrai Colina eta Agin Laburu bertsolariekin, 21:00etan hasita. Gai-jartzailea Mikel Arrillaga izango da eta tiketak Kultu tabernan daude salgai (bazkide eta langabe-tuak 20 euro, gainontzekoak 24 euro).



Perkusioa eta Gaztechef gaztelekuan

Indianokua gaztelekuak jarduera bitan parte hartzeko izen-ematea zabaldu du (apirilaren 17ra arte): apirilaren 30ean perkusio tailerra egingo dute eta, horrez gain, aurreko urteetan arrakasta handia izan duen Gaztechef lehiaketa ere egongo da martxan hainbat asteburutan. Informazio gehiagorako gaztelekuko arduradunei galdetu.

Eduardo Momeñeren argazki-ikastaroa

Klub Deportiboko argazkilaritza taldekoek antolatutako Argazkilaritza Maizatzean-en barruan, "Argazkilaritza praktikatzeko hainbat proposamen" izenburuko tailerra emango du Eduardo Momeñek maiatzaren 7an, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara (8 ordu), Portalean. Prezioa 20 eurokoa da eta plazak mugatuak dira. Izen-ematea argazkilaritza@deporeibar.com helbidera idatzita

egin daiteke. Momeñe argazkilaria eta argazki-estetikaren inguruko testu-egilea da. Argazkilaritzaren inguruko irakaskuntzak bere ibilbide profesionalean toki handia bete du eta ikastaro, tailer eta mintegi ugari eman ditu. Antolatzailerek azaldu dutenez, "aplikazio praktikoa duen tailer teoriko hau argazkilaritza ona maite dutenei, hasi berriei zein argazkilaritzan ibilbidea eginda dutenei zuzenduta dago".



Mailegurik ez liburutegian 8tik 11ra

Gaurtik hasita eta astelehenera arte ez da mailegurik egingo liburutegian. Arduradunek azaldu dutenez, "Bilboko udal liburutegiak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean sartuko dira eta katalogoak bateratzeko apirilaren 8tik eta 11ra bitartean (biak barne) ezin izango da mailegu eta berriztatzerik egin, ez liburutegian ezta e-Liburutegian ere". Hala ere, katalogoen bateratzea egiten duten bitartean liburutegia zabalik egongo da eta, mailegua izan ezik, beste zerbitzu guztiak erabili ahal izango dira.



Lander Garroekin tertulian


Martitzen arratsaldean Lander Garro idazle oreretarra Portalean egon zen, Antxon Narbairak gidatuta egin zen Harixa Emoten literatur tertulian "Gerra txikia" (Susa, 2014) bere liburuari buruz irakurleekin berba egiten. Euskerazko irakurketa klubaren hurrengo saioa maiatzaren 3an izango da eta egun horretarako idazle gonbidatua Jasone Osoro elgoibartarra izango da. "12etan bermuta" bere eleberriaz jardungo du.

Musika Bandaren kalejira eta kontzertua

Eibarko Cielito Musika Bandak kontzertua emango du domekan, 12:30ean Coliseoan. Carlos Sanchez Barbak zuzenduta, honako egitaraua eskainiko dute: "El fallero" (pasodoble, J. Serrano), "Aires Vascos Nº1" (herrikoia, J. Franco), "La Gran Via" (aukeraketa, Chueca y Valverde), "A Tribute to Elvis" (aukeraketa, Thijs Oud) eta "Film Festival" (aukeraketa, H. Kolditz). Aurretik, euririk ez bada, kalejira egingo dute (11:15ean).

"Ebakiñak" argazki bilduma Topalekuan

Gaur 19:00etan zabalduko dute "Ebakiñak", Jose Luis Irigoien argazki-erakusketa. Apirilaren 17ra arte egongo da ikusteko aukera, egunero 19:00etatik 21:00etara eta asteburuan, berriaz, baita goizez ere 12:00etatik 14:00etara.



Mª CARMEN FRANCO AGIRRE


(I. urteurrena: 2015-IV-7)

*"Beti izango zaitugu gure bihotzetan.
ASKO MAITE ZAITUGU"*

ZURE FAMILIA



eguraldia (EUSKALMET.NET)



Txori kantariak Deban

Domekan 09:00etatik 12:00etara Txori Kantarien Lehiaketa jokatuko dute Deban, Calbeton Zumardian, La Lubina elkartearen ekimenez (euria eginez gero, Aldats frontoian izango da).



"Familia ugariak" hitzaldia Soraluzen

Hirukide Familia Ugarien Federazioak antolatuta, apirilak 21ean, 17:30ean "Familia ugariak" hitzaldia hasiko da Soraluzeko Herri Antzokian. Bileran kolektiboak bizi duen egoeraz, bere aldarrikapenez eta familia ugariarentzat dauden laguntzez egingo dute berba, besteak beste.



Aurresku eta soinu zahar txapelketa

Asteburuan Aurresku eta soinu zahar txapelketa hartuko du Elgoibarrek. Guztira 62 dantzarik hartuko dute parte eta, betiko martxan, kanporaketa bi jokatuko dituzte: zapatuan A saileko (7-11 urte) neska-mutilak lehiatuko dira, 16:00etatik aurrera, eta domekan, berriz, B sailekoen (11-15 urte) txanda izango da. Domekako saioa goizez izango da, 11:00etan hasita.

hildakoak

- Juana Gonzalez Kortaberria. 82 urte. 2016-III-26.
- Timoteo Lazpita Areitiobirtxinaga. 91 urte. 2016-IV-1.
- Mercedes Errasti Iriondo. 84 urte. 2016-IV-1.
- Maite Agirregomezkorta Zubiaurre. 51 urte. 2016-IV-3.
- Juan Antonio Belategi Txurruka. 85 urte. 2016-IV-3.
- Alejandro Ortiz de Zarate Intxausti. 97 urte. 2016-IV-4.
- Joseba Martija Urreiziti. 82 urte. 2016-IV-5.
- Benedicta Toran Teruelo. 88 urte. 2016-IV-5.

jaiotakoak

- Nahia Zendoia Gonzalez. 2016-III-24.
- Chris Okotie Jonel. 2016-IV-3.
- Xuhare Gojenola Martinez. 2016-IV-5.

farmaziak

- Barixakua 8
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Zapatua 9
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Domeka 10
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
- Astelehena 11
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Martitzena 12
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Eguaztena 13
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Eguena 14
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
- Barixakua 15
EGUNEZ Mendiola (S. Agustin, 3)

GAUEZ BETI - 2016AN- Iraundegi (Calbeton, 19)

SUDOKUA

		6			9	1		3
	5	9						
			8	3			6	
			4					1
5		4				6		9
1					6			
	2			6	8			
						5	8	
4		5	1			2		

3	2	7	4	6	9	8	1	5
5	6	9	3	1	8	4	7	2
4	1	8	2	7	5	9	6	3
2	4	5	7	3	6	1	9	8
9	8	6	1	5	4	2	3	7
1	7	3	8	9	2	6	5	4
8	5	1	6	2	3	7	4	9
6	3	4	9	8	7	5	2	1
7	9	2	5	4	1	3	8	6

AURREKOAREN EMAITZA

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 8

CARE

10:00/13:00 eta

17:00/20:00. Errefuxiatuei laguntzeko materiala batuko dute. B. Sarasketa, 7an (FIAT izandakoan).

EUSKAL HERRIKO ITZULIA

14:20. Elgetaruntz.

15:55. Ixuaren bila

16:40. Arrateruntz.

GAZTELEKUA

16:30. Disparatea. Indianokuan.

BERTSO AFARIA

21:00. Sustrai Colina eta Agin Laburu bertsolariekin. Arrate Kultur Elkarte.

Zapatua 9

PROIEKTUEN AZOKA

09:15/18:00. Biharriaren-en (Ubitxa, 16an).

CARE

10:00/13:00 eta

17:00/20:00. Errefuxiatuei laguntzeko materiala batuko dute. B. Sarasketa, 7an (FIAT izandakoan).

EUSKAL HERRIKO ITZULIA

14:45/16:30. Erlojuz kontrakoa. Irteera: Urkizun. Helmuga: T. Etxebarrian. Herriko errepideak moztuta 13:00etatik 18:00ak arte (*ikus 6. orrialdean*)

GAZTELEKUA

16:30. Disparatea. Indianokuan.

UMEENDAKO ZINEA

18:00. "El viaje de Arlo". Doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

KALEETAN KANTUZ

19:45. Abesbatzaren kalejira. Untzagatik irtenda.

Domeka 10

CARE

10:00/13:00 eta

17:00/20:00. Errefuxiatuei laguntzeko materiala batuko dute. B. Sarasketa, 7an (FIAT izandakoan).

TXIRRINDULARITZA

10:30. LVI. Otxoa Oroitzarrea. Untzagatik.

12:00. Helmuga Urkizun.

KONTZERTUA

12:30. Cielito Musika Banda. Coliseoan.

GAZTELEKUA

16:30. Play. Indianokuan.

PILOTA

17:00. Irusta vs Uruzola. Retegi Bi-Zabaleta vs Gorka-Tolosa. Erostarbe vs Martija. Astelenan.

Astelehena 11

HITZALDIA

19:30. "Emakumea, eskubideak eta II. Errepublika", Garbiñe Biurrunen eskutik. Portalean.

Martitzena 12

IKASTEN

10:00. "11. Errepublikaren konstituzioa Alfontso XIII.a arte" (2. atala). Armeria Eskolan.

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra.
17:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

TAILERRA

19:00. Sukaldaritza: "Barrita energetikoak", Zalao Otaduiaren eskutik. Klub Deportiboan.

AURKEZPENA

19:30. "Mis memorias. La guerra civil española: 20 meses prisionero", Santiago Arizmendiariaren liburuaren aurkezpena. Udaletxean.

Eguaztena 13

IKASTEN

09:10. Mendi-ibilaldia: Orio-Burdinola-Iturraran-Pagoeta-Zarautz. Trenaren irteera ordua, Ardantzatik.

PROIEKZIOA

19:00. "Biblioteca en guerra", Maria Moliner eta misio pedagogikoen inguruko dokumentalaren proiektzioa. Portalean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.

Eguena 14

HITZALDIA

10:00. "Energia iturriak", Aitor Urrestiren (Energia Berriztagarrietan Industri Ingeniaria eta irakaslea) eskutik. Armeria Eskolan.

II. ERREPUBLIKA

12:00. Sozialistek "Casa del Pueblo"-n bandera igo eta txapliguak botako dituzte, Txaltxa Zelaian.

20:00. "Ahaztuak 1936-1977" elkartearen ekitaldia: dantzariak, kantariak (Revuelta eta Etxebeste). Untzagan.

ODOL-ATERATZEA

18:30/20:30. Odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

MENDI ASTEA

19:00. "Mendizaletasuna eta euskara" hitzaldia, Mikel Arrizabalagaren eskutik. Klub Deportiboan.

BILERA

19:00. Kaleratzeak Stop Debabarrenaren bilera irekia. Portalean (3. solairuan).

KALEETAN KANTUZ

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.

Erakusketak

Apirilaren 22ra arte:

Jose Luis Irigoien "Ebakiñak" (*Topalekuan*)

Apirilaren 30era arte:

"Andrak eta errepublika" (*Juan San Martin liburutegian*)

"ADECAP Elkarteak 25 urte" (*Armaztearen Museoan*)

Eibarko Artisten Elkartearen 50. urteurrena (*Portalean*)

2016ko abendura arte:

Jose Luis Apraizen arma-bilduma (*Armaztearen Museoan*)

Lehiaketak

Txikitto! hilabetekariaren irudi berria. Norentzat: Eibarko LH-ko 5. eta 6. mailetako ikasleentzat. Gaia Txikitto! aldizkaria irudikatuko duen irudia izango da. Saria: Tablet bat. Lanak entregatzea eta informazioa: **apirilaren 12an baino lehen**, ...eta kitto!-n (Urkizu, 11 solairuarean / 943200918 telefonoan).

"Valenciaga Oroitzarrea" argazki-lehiaketa. Lanak aurkeztea: **maiazaren 3ra arte**, Eibarko Txirrindulari Elkartearen (Pagaegi, 3 behean). Informazio gehiagorako: cce@clubciclistaeibarres.org helbidera idatzi.

"Sanjuanak Eibarren" kartel-lehiaketa eta Alkohol larregi edatearen kontrako pegatina-lehiaketa. Informazioa eta lanak aurkeztea: **Maiazaren 6ra arte**, Pegoran.

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.

laztanak emoten...
943 20 09 18
 publizitatea@etakitto.eus



Zorionak, NAHIA!!!, gure neska haundixak sei urte egin zittuan-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta famelixaren partez.



Zorionak, IRAIA, haraiñegun bost urte bete zenduaz-en-eta. Laztan haundi bat famelixaren eta, batez be, Aneren partez.



Zorionak, JON!, haraiñegun sei urte egin zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat, gizontxo, etxekuen partez.




Zorionak, HIART, martitzenian bost urte bete zenduaz-en-eta. Musutxu haundi bat osaba Ibon eta izeko Yoliren partez.



Zorionak, JULEN Medina, gure etxeko bihurrixak gaur bi urte egitten dittu-eta. Patxua aitaxo, amatxo eta, bereziki, Unairen partez.




Zazpi urte!! Zorionak, IGOR, mutil haundi, hillaren 3an urtiak egin zenduaz-en-eta. Eta patxo bat etxekuen partez.



Zorionak, UNAI, astelehenian bost urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, Danelen partez.



Zorionak, amama ROSI!!!, gaur urtiak betetzen dozuz-eta! Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MAITANE, zure lehelengoko urtebetetzian. Muxu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Udaneren partez.



Zorionak, EKHI, atzo hiru urte bete zenduaz-en-eta. Muxu potolua famelixaren eta, batez be, Adeiren partez.



Zorionak, MADDALEN eta ELENE! Muxu haundi bana gure bitxilorentzako!!!



Ongi etorri, MANEX! Eta zorionak, Olatz eta Urko! Patxo bat tia Izaskunen partez.



Zorionak, MARKEL (bixar 8 urte) eta LUKEN Maiora (hillaren 19xan, 4 urte) zuen egunetan. Muxu haundi bat, potxoluok, famelixa guztiaren partez!!



Zorionak, GAROA (13 urte) eta aitxitxa EDUARDO, bixar urtiak beteko dozuez-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, JULENE, zure 16. urtebetetzian. Askoi maitte zaittugu. Aittaren, amaren eta ahiztaren partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

9an: 19:45, 22:30

10ean: 20:00

11n: 20:30

"Orgullo+Prejuicio+Zombis"

Zuzendaria: Burr Steers



(2 ARETOAN)

9an: 17:00, 19:45, 22:30

10ean: 17:00, 20:00

11n: 20:30

"La juventud"

Zuzendaria: Paolo Sorrentino



(ANTZOKIAN)

9an: 17:00 (1), 19:45, 22:30

10ean: 17:00 (1), 20:00

11n: 20:30

"Objetivo: Londres"

Zuzendaria: Babak Najafi



(ANTZOKIAN)

9an: 17:00 (gaztekeraz)

10ean: 17:00 (EUSKERAZ)

"Norman del Norte"

Zuzendaria: Trevor Wall



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Buhardilla salgai. Berriztuta. Tel. 634-453097.
– Amañan pisua salgai. 2 logela, egongela eta ganbara. Jantzita eta bizitzera sartzeko moduan. Kalefakzioa. Dena kanpora begira. Tel. 671-439939.

1.2. Errentan

– Udarako etxebizitza alokagai Deban. 2 logela. Erdigunean kokatuta. Tel. 607-180791.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 450-500 euro inguru ordaintzeko prest. Tel. 631-343232.
– Pisu txikia behar da Eibarren. Ahal denik eta arinen. Tel. 634-458275.

2. Motorra

2.1. Salgai

– 2014ko azaroko Ford Kuga salgai. Diesel, 140cv, 2.TDCi Titanium. 4x2. 22.000 km. Berriberria. Tel. 637-340441.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Taberna traspasatzen da Eibarren. Prezio onean. Tel. 628-235319.

3.2. Errentan

– Garaje itxia alokagai Eibar erdialdean (Txomo eta Abontza artean). Tel. 617-688311.
– Lokala alokagai Ubixta inguruan, kalerako irteera zuzenarekin. Bulego, biltegi edo tailer txikiarendako aproposa. 70m²/150m². Tel. 617-688311.
– Martxan dagoen ileapaindegia alokagai Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Gizona eskaintzen da gaeuz eta asteburuetan nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 650-513412.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 658-458271.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-490595.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 604-297837.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu, sukalde-laguntzaile jardun eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-562380.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 642-694596.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 631-506763.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-967238.
– Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-454417.

– Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-705406.
– Neska eskaintzen da astegunetan goizez etxeko garbiketarako egiteko eta gaeuz ospitalean zaintzeko. Esperientzia. Tel. 652-587259.
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 652-587259.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 686-265293.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 679-910991.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Edozein ordutegitan. Tel. 637-071779.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Edozein ordutegitan. Tel. 661-001246.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta dendaria moduan. Orduka. Tel. 639-423493.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere). Tel. 632-925362.
– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 690-064225.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 678-814941.
– Mutila eskaintzen da baserrietan lan egiteko. Tel. 622-702398.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-732847.
– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 662-012834.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-956574.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta beste edozein lan egiteko. Tel. 631-466742.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-562380.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-103811.
– Neska euskalduna eskaintzen da etxeko garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 943-744033 eta 637-102725.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 626-197217.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-220789.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 608-893250.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 631-466742.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 634-748531.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 10 urteko esperientzia. Tel. 671-897262. Rosi.
– Gizona eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. DYAKO soroslea eta Gerontologia tituluarekin. Tel. 662-638500.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 617-181350.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 744-403068.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-911709.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu (baita gaeuz ere) eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-832388 eta 633-808931.

– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 628-665395.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-776905.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 662-430951.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 681-065683.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-425686.
– Emakumea eskaintzen da era guztietako garbiketarako lanak egiteko. Tel. 638-421827.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 687-362183.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-411705.

4.2. Langile bila

– Sukaldari orientala behar da autoarekin. Tel. 670-672515.
– Kamarera/o behar da lanaldi osorako. Tel. 615-750942. Oskar.
– Neska behar da bi ume zaintzeko. Tel. 653-701630.
– Kamarera/o behar da asteburuetarako Eibarren. Curriculumak: tre@euskalnet.net
– Pertsona bat behar da asteburuetan Amañako dastalekuan lan egiteko. Bidali curriculum-a: igorvazquez@hotmail.com
– Kamarera/o behar da Eibarko jatebete bateko barra eta jantokian. Ezinbestekoa esperientzia izatea. Tel. 653-732537.
– Pertsona behar da garbiketarako lanak egiteko. Beharrezkoak autoa eta gidatzeko baimena. Autonomo egin beharko da. Tel. 685-701034.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– DBH, Babilergoia eta partikularren azterketak prestatzeko klase intentsiboak ematen ditut. Tel. 685-939709.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Juan Serranoren hainbat margolan saltzen ditut. Tel. 656-710155 eta 943-207703.
– 0'90eko sukalde salgai, gas-bonbonak eramatekoarekin. Baita 0'90eko ohe artikulatua ere. Berriak. Tel. 617-688311.
– Bigarren eskuko bizikleta merkea erosiko nuke. Baita whatsapp bitartez ere. Tel. 645-722611.
– Sehaska salgai, koltxoirekin. Ia berria. 100 euro. Tel. 687-675484. Arantza.

6.4. Bestelakoak

– Nire kabuz jazz-gitarra ikasten nabil. Lagunak behar ditut (gitarra edo beste instrumenturen bat) elkarrekin ikasteko. Tel. 649-088883.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdut/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eu

I. Gin Tonic lehiaketa



Apirilaren 15etik 17ra

Finala:
Apirilaren 22an
Untzaga plazan



PARTE HARTZEN DUTEN TABERNAK

Akara	Untzaga, 4	Koskor	Calbeton, 6
Amesti	Ziriako Agirre, 2	Kultu	Zuloagatarren, 3
Ametsa	T. Etxebarria, 2	Lau Bide	Ziriako Agirre, 1
Arkupe	Isasi, 2	Ongi Etorri	T. Etxebarria, 21
Beleko	Bista Eder, 2	O'Jays	Untzaga, 8
Birjiñape	T. Etxebarria, 16	Slow	Ego Gain, 10
Cepa	Urki, 29	Sutondo	Isasi, 31
Foxter	Plaza Barria, 6	Txoko	Untzaga, 10
Guridi	Untzaga, 3	Xok	Isasi, z/g
Kontent	Ego Gain, 6	Zubi Gain	Urkizu, 11

Antolatzailea:



Babeslea:



Laguntzaileak:



Probatu

nola ikusiko duzun
lenteak izan aurretik

Gure betaurreko
guztiak bilduma
berrietakoak dira

Nautilus, lenteak probatzeko errealitate birtualeko
lehen aparailua **Multiópticasen**



www.multiópticasgipuzkoa.com   

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRENTERIA • IRUN • LASARTE • ORDIZIA • TOLOSA

Bidebarrieta, 2 • Tel.: 943 20 05 22 • EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan